



EKIALDE HURBILEKO GATAZKA

Israelek okupazioa areagotu du, Powel palestinarrekin menia aztertzen ari dela

Jerusalemgo auzo arabiarretan, Tulkaremen eta Nabulusen sartu dira Israelgo indarrak

Ameriketako Estatu Batuetako Estatu idazkari Colin Powell ez da arrakastarik lortzen ari Israelen eta Palestinaren arteko gatazkaren konponbidean. Atzo, palestinarrekin su-etena negoziatzen ari zen bitartean, Israelgo Armadak Jerusalemgo auzo arabiarrek, Tulkarem eta Nabulus okupatu zituen, nahiz eta ordu batzuk lehenago Israelgo Gobernuak hitzeman zion operazio militarra lehenbailehen amaituko zuela. /22-23

GREBA OROKORRA ITALIAN



Turinen grebarekin batera egin zen manifestazio eta elkarretaratze jendetsua, San Carlo plazan.

Italia osoa gerarazi du greba orokorrak

Milioika italiarrek greba egin zuten atzo, sindikatuek Silvio Berlusconi gobernuaren aurka egindako lanuzte deialdiari erantzunez. Azken hogeitortan izan den lehen greba orokorrak Italia geldiarazi zuen. Zerbitzuetan, garraioan eta bigarren sektorean arrakasta itzela izan zuen. Langileen eskubideak murrizten dituen legeak bultzatu du lanuztea. Berlusconi elkarriketarako deia egin die sindikatuei, baina esan du lege proiektuak ez duela atzerabiderik. /24

HOLANDA

Srebrenicari buruzko txostenak Holandako gobernuak erorarazi du

Kokek dimisioa aurkeztu zuen atzo, Bosniako sarraskian holandarrek izaniko zeharkako erantzukizunagatik. /25

ELKARRIZKETA



EMILIO OLABARRIA
EAJko legebiltzarkidea eta CGPJko kide ohia

«Batasuna legez kanpo utzita, udal bozek ez lukete zilegitasunik izango» /8

ELKARRIZKETA

AUGUSTO MAESO
Gipuzkoako Auzitegiko epailea

«Hitz egiten hastean, emakumeak ez du jipoi bat soilik kontatzen» /12-13

VENEZUELA

Washingtonek aitortu egin du kolpistekin bildu zela

ELKARRIZKETA

LUIS SALAMANCA
Venezuelako Ikerketa Politikoen Institutuko zuzendaria

«Oposizioak gogoeta egin behar du, ez baita egokia izan hartu duen bidea» /27

Kuba Tunisia Praga Tenerife ...

Ezagutu nahi al dituzu?

Ikus ezazu 29. orrialdea